

Helduen literatura

Ilusioaren ordaina
 Laura Mintegi
 Erein, 1983.



Bueno, bai eta ez, badakizu

HONEZKERO jakingo duzue: Laura Mintegi lehendakari da. Azken orduko berririk ezean, Euskal PEN Klubeko lehendakari da Laura Mintegi, Eusko Jaurlaritzako lehendakari izateaz gainera. Apenas aipatu da hautes lasterketan sartu zenetik, baina gauza ezaguna da lehendakari bano lehen Mintegi idazle genuela. Eta deskuidatzen bazarete lehen lehendakari idazlea ere bai –ez, ordea, lehen literaturzalea, Patxi Lopezek ondo baino hobeto erakutsi bezala–. Hemen, beraz, Mintegiren perfil –nahita edo nahi gabe– deskuidatu hori hartuko dugu mintzagai.

Ezen ugari baitira argitaratutakoak, 80ko hamarkadan hasi eta gaur egunera artekoak; ipuin bilduma bat eta bost nobelako korpus literarioa osatzeraino. Nobelak izan dira gerora, baina ipuinak izan ziren aurretik, 1983an. *Ilusioaren ordaina* bildumaren genesisia Ana Urkizaren *Zortzi unibertso, zortzi idazle* liburuan aitortzen digu Mintegik berak: Donostia Hiria sariketara aurkeztu eta irabazi egin zuen. Horri esker, Erein argitaletxeak liburu bat argitaratzeko eskaintza egin zion. Ipuin batzuen zirriborroak zituen eta uda eman zioten zirriborro haiekin liburu atontzeko: “Nik, ausart, baietza eman nien, jakin gabe gai izango ote nintzen liburu egituratzeko eta bukatzeko, eta bai, gai izan nintzen”.

Eta bilduma irekitzen duen *Satorzuloak* ipuinak irabazi zuen aipatutako 83ko Donostia Hiria. Eta

bildumako beste ipuin pare bat ere izan ziren garaian sarituak: *Paris edo* 83ko Santurtziko udala sariarekin; *Ez dadila belu izan* suertatu zen 82ko Kirikino sariko finalista. Eta bildumak azkenerako uzten duen inpresioa da, ez hainbeste sariketa batek ziurtatu beharko lukeen lan literario baten berezitasun, bakartasun, ertzez beteriko borobiltasunarena, baizik eta uda batean apailatua izan den sortarena. Laino, herabe, beharrezko puntxik gabe, bai eta ez, epel xamar uzten zaitu azkenerako.

Gertatu izan da Laura Mintegiren beste lan batekin, *Bai... baina ez* estreinako nobelarekin. Zuzenka eta lan handia egin zela, sintaxia, lexikoa, estiloa, elkarrizketak. Berridatzia eman zela 86koa 99an. Eta ikusten dugu eskuetan dugun *Ilusioaren ordaina* hau ere, 99koa, 83ko haren edizio zuzendu eta eguneratua dela. Baina *Bai... baina ez* harekin gertatzen zenaren kontrara –lehen argitalpenak kritika zorrotzak jaso zituen, edizio berridatziak irakurketa berri eskuzabalagoak–, lehen ipuin bildumaren bigarren edizio honek ez dakit orijinala hobetzen duen, baina ez du emaitza bete-beterik uzten. Edo, beste modu batean esanda, Iñaki Kamino estimatuak agerkari honetantxe 84an jaulki zituen laudorioek ez dutela ia 30 urteko galga gairiditu. ■

Aritz Galarraga



Xolomozko burrunzia

Bartolo
 taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
 aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
 Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com